

KONTROL MOZIOA

GENTRIFIKAZIO KOMERTZIALAREN AURKAKO NEURRIEI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziak Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko azaroaren 14ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Zentzu zabalean ulertuta, gentrifikazioa lurzoruaren prezioa igotzea eta diru-sarrera gutxiagoko bizilagunak auzo batzuetatik besteetara lekualdatzea eragiten duten hiri-berroneratze prozesuei dagokie. Hala ere, fenomenoaren gaur egungo izaerak beste fenomeno batzuekin erlazionatzeko aukera ematen digu, hala nola turistifikazioarekin, zeinak turistek hiri-espazioa erabiltzeari eta horrek bizitegi- eta merkataritza-egituran egiten dituzten eraldaketei egiten dien erreferentzia. Ildo horretan, esan behar da, oro har, turistifikazioa eta gentrifikazioa elkarren eskutik doazela eta elkar indartzen dutela. Ez dugu guk esaten. Visit-Bizi Donostiako 2017-2021 Turismo Planak honela jasotzen du 41. orrialdean:

“Nolanahi ere, Donostian turismo jardueraren hedapen bizkor horrek ondorio ekonomiko ez hain positiboak ere baditu. Horien artean agerikoena da prezioen gorakada orokorra (lurzorua, ostalaritza, elikagaiak,...), eta horrek eragin handia du tokiko komunitateko sektorerik kaltetuenetan (...).”

Zalantzarik gabe, hiri-turismoak gero eta eragin handiagoa du hirien aldaketa-prozesuetan, turisten kontsumo-ohiturek espazio publikoari eta auzoen merkataritza-egiturari eragiten baitiete. Hori da, hain zuzen ere, gentrifikazio komertziala: biztanleria flotatzailearen zerbitzura dauden jarduera ekonomiko berriek hiri-egitura produktiboa eraldatzea. Gentrifikazio komertziala gentrifikazio-prozesu orokorren parte da, eta Parte Zaharraren kasuan ikusten den bezala, bi arrazoi nagusi ditu: bezero berrien kontsumo-ohituren arteko aldea eta merkataritza-lokalen alokairu-prezioen igoera (Lisa Vollmer, 2019).

Prozesuaren logika erraz ulertzen da, eta ondorioak guztiz bistakoak dira. Turista asko biltzen diren auzoetan, taberna bat (adibidez) burdindegia bat baino errentagarriagoa izango da

(mozkinei dagokienez), eta, beraz, alokairuak handitzearen ondorioz, turisten kontsumo-eredura egokitutako negozioek egunerokoan behar diren saltokiak ordezkatu dituzte.

Lokal berriek erabiltzaile berrien kontsumo-beharrak islatzen dituzte. Are gehiago, egitura komertzial berri horrek estetika propioa dakar berekin, ordura arte ohikoa izan denarekin hausten duena, eta inbertsoreentzat auzo horretan inbertitzea merezi duen seinale gisa funtzionatzen duena. Alokairuek gora egiten jarraitzen dute, baita gentrifikazio komertzialak ere. Baina prezioek gora egin ahala, hasierako inbertsore horiek ere albora egin behar dute, eta, azkenean, halako alokairuei erantzun diezaieketen bakarrak enpresa-kate eta -talde handiak dira. Hau da, kapitalak kontzentratzeko joera du, eta berdin jabetzak, eta fenomeno horren ondorioak aski ezagunak dira Parte Zaharra bezalako auzo batean: bere kabuz jardun nahi duen ekintzailea joko kanpo geratu da.

Gentrifikazio komertziala errealitate ukazina da, gentrifikazioa bera bezalaxe. Hala ere, fenomenoari erreferentzia egiten dioten diskurtso bakanetan, gentrifikazioa garapen natural gisa aurkezten zaigu, horren kontra ezer egin ezin daitekeen zerbaiten gisa. Baina, gentrifikazioa ez da saihetsezina. Etxebizitza eskuragarria behar bezala babestuta badago eta egunerokotasunerako behar diren saltokiak babesten badira, turistifikazioak ez du zertan gentrifikaziora eraman behar (nahiz eta ezin diren alde batera utzi fenomeno horren ondoriozko beste arazo batzuk). Prozesu horien atzean interes zehatzak ezkututzen dira, eta eztabaida “turista bai/turista ez” antinomiarantz bideratzeko estrategiak, egiazko arazoa desbideratzeko ez ezik, donostiarroi ezarri zaizkigun egiturazko aldaketetan erantzukizun politiko eta instituzionalak estaltzeko ere balio du.

Turismoak mugitzen duen diruak ezin du edozer justifikatu eta herritarrak babesik gabe utzi. Etekin ekonomikoa errentagarritasun sozialaren aurretik lehenesten duten inbertitzaile global eta lokalek ez dute besterik gabe beren “urrezko meatzea” utziko, eta horrek administrazio publikoaren esku-hartzea ezinbesteko egiten du.

Gora doan turistifikazio prozesuak eta prezioen igoera kontrolaezinak Parte Zaharreko egungo errealitatea beste auzo batzuetara hedatzeko arriskua dagoela ohartarazten digute, gaur dagoeneko jasaten ari ez badira.

Honen guztiaren inguruan, interpelatuta, Udal Gobernuak argi utzi zuen ez duela inongo estrategiarik, plangintzarik, ekimenik... errealitate horri aurre egiteko.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udaltzakerak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari beren-beregi sar dezala gentrifikazio komertzialaren aldagaia tokiko merkataritzari eta ostalaritzari zuzendutako politiketan, errealitate hori aintzat hartu gabe, baliabide eta laguntza publikoak baliogabeak baitira zenbait auzotan.

2.- Donostiako Udaltzakerak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, behin gentrifikazio komertziala aintzat hartuta, fenomeno hau auzo berrietara ez hedatzeko nahiz dagoeneko kaltetuak izan diren auzoetan egoera leheneratzeko neurriak har ditzala; hala nola, merkataritza-lokalak turismoaz bestelako jardueretara bideratzea sustatuz, batez ere eguneroko erabilerako jarduera ekonomikoetara.

Donostian, 2022ko azaroaren 18an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia